

ENPRESA IDEIA



ENPRESA EREDUA DEFINITZEN...

BEHARRA DETEKTATZEN:

Teknologiak izaugarritzko aurrerapasuak izan ditu azken urteotan, hori ukaezina da. Baina hala eta guztiz ere, gure bizitzan presentzia handia badu ere, badira bizitza asko erraztuko liguketzen milaka asmakuntza oraindik ezagutzen ez ditugunak. Gizartean dagoen behar handietako bat puntako teknologiaren iritsgarritasuna bermatzea dela uste dugu. Izan ere, askotan gailuak erostea oso garestia da eta horregatik ia inork ezin da teknologia berrien abantailaz aprobetxatu.

GURE EKARPENA DEFINITZEN

Zertan gara onak?

Gure ustez, taldelanean onak gara eta horrek ongi koordinatutako enpresa bat sortzen lagunduko digu. Horrez gain komunikatzeko gaitasuna dugu, beraz, produktu berri bat gizartean ezagutarazteko bitarteko egokiak gara. Gainera, teknologiari buruzko nahiko ezagutza daukagu eta ikasteko erraztasunari esker erraz ikasiko genuke tresna berriak erabiltzen.

Gure interes nagusia 3D inpresioa denen eskuragarri jartzea da. Horretarako komertzio bat sortuko dugu.

BRAINSTORMINA

1, FASEA

- gailu teknologikoen modelo sinple eta merkeak egin merkatuan merkeago saltzeko
- punta puntako gailu teknologikoak erosi, denda bat jarri eta beren erabileragatik kobratu.
- puntako gailu teknologiko bat asmatu
- gailu teknologikoek ematen dituzten abantailak beste modu batera lortzen saiatu

2. FASEA

Gailu teknologikoen modelo sinpleak egiteko guk ez ditugun ezagutza asko behar dira. Gainera patentearekin arazoak izango genituztek.

Bestetik, puntako gailu teknologiko bat asmatzeko ere ezagutza asko behar dira. Gainera hasiera batean ez zaigu ideiarik bururatzen. Bestalde, gailu teknologikoen abantailak beste modu batera lortu genitzake baina gizartean dagoen beharra gailu hauek jendearengana hurbiltzea dela uste dugu, hortaz ez litzake koherentea izango.

Puntako gailu teknologiak erosi eta hauekin denda bat jartzea oso garesti aterako litzaiguke. Aitzitik gailu bakarrean zentratuko bakgina beharbada arrakasta izan lezake.

3.FASEA

3D-n inprimatzen duen enpresa bat sortuko, bai dekorazioko diseinuak eta baita ingeniari-tza eta arkitektura munduko objektuak inprimatu ahal izateko.

ENPRESA IDEIA:

Asmatu gabeko zerbait asmatzen hasi aurretik jada sortua dagoena behatzeari ekin diogu eta konturatu gara ez dagoela 3D inpresioa edonoren eskura. Izugarria da gaur egun teknologian izan duen bilakaera eta asmakizun hauek zalantzarik gabe egin diren aurrerapausurik handienetakoa dela iruditzen zaigu. Izan ere, diseinuak pieza bakar batean

inpirmatzea ahalbidetzen du eta gainera azkarra da. Beraz 3D inpresora bat ingeniari eta arkitektura ikasleen eskura izatearen abantailak izugarriak izango liratekeela konturatu gara. Bestalde, gaur egungo gizartean sormena duen geroz eta jende gehiago dago eta beren diseinuak bozeto huts batean geratzen dira askotan. Horregatik, uste dugu 3D inpresora bat beren eskuragarri jartzen badugu sormena lantzeko modu paregabea dela. Izan ere, diseinatutakoa esfrotzu handirik gabe materializatzeko aukera izango lukete.

Hortaz 3D inpresora ardatz duen tailer bat sortzea erabaki dugu: Hasteko unibertsitate eta ingeniariarekin eta arkitekturarekin zerikusia duten erakundeekin aliatu eta 3D inpresorak jarriko ditugu, ikasleek erabil ditzaten. (betiere zerbitzuagatik ordainduta, hori izango litzake etekin iturri bat). Bestetik, gure tailerra izango dugu eta online jasotako diseinuak inprimatuko ditugu.

Oliver Zubillaga
Helene Mendizabal
Unai Delpuerto
Beñat Landa